

UNIBERTSITATEKO TXARTELA

MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK

Aurkibidea

ZER DA UNIBERTSITATEKO TXARTELA?	1
ZERTARAKO BALIO DU UNIBERTSITATEKO TXARTELAK?	1
NOLA ESKA DEZAKET??.....	1
NON ETA NOIZ JASO DAITEKE?	1
ZER PIN DAUKA TXARTELAK?.....	1
PINA ALDA DEZAKET?.....	2
EZ NAIZ TXARTELEKO PASAHITZAZ OROITZEN	2
TXARTELEKO PINA BLOKATU ZAIT	2
DATORREN IKASTURTEAN BERRIZ ESKATU BEHAR DUT TXARTELA?	2
TXARTELA GALDU DUT	2
NIRE TXARTELAK AKATS BAT DAUKA NIRE DATU PERTSONALETAN. ZER EGIN DEZAKET?.....	2
UNIBERTSITATEKO NIRE TXARTELA GAITU BEHAR DUT ONGI FUNTZIONA DEZAN?.....	3



NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA

2018ko irailaren 5ean
UNIBERTSITATE ARRETARAKO BULEGOA

UNIBERTSITATEKO TXARTELA

MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK

Zer da unibertsitateko txartela?

Unibertsitateko txartela unibertsitateko kide zarela frogatzen duen txartela da. Hainbat zerbitzu erabiltzea ahalbidetzen du, NUP barruan nahiz NUPetik kanpo, eta gainera, lau zenbakiko pin batek babestua dago; pina txartelarekin batera ematen da.

Txip batez hornitua dator, non zure identifikazio-datuak grabaturik baitaude.

Zertarako balio du unibertsitateko txartelak?

Txartelak Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikaslea zarela frogatzen du eta sarbidea ematen dizu NUPeko zerbitzu eta instalazio batzuetara. Gainera, kirolean, kultur jardueretan, Hizkuntzen Goi Mailako Ikastegian edota Fundazioaren Titulu berekietan matrikulatzen zarenean, deskontuak izaten ahalko dituzu txartela erakustean.

Zehazki, unibertsitateko kirol jardueretan inskribatu bazara, unibertsitateko zure txartelaren alta eman beharko duzu Kirol Zerbitzuan. Liburutegiko eraikinean, liburuak mailegutzan hartzen dituzunean eskatuko dizute eta, era berean, azterketa garaian barrura sartzeko.

Jakizu, unibertsitateko txartelaren bidez, ikasleek hainbat deskontu edo abantaila izan ditzakezuela Nafarroako eta Estatu osoko zinematoki, museo, denda eta beste establezimendu batzuetan. Bestalde, interesatuko zaizu ziurrenera Ikaslearen Nazioarteko Txartela eskuratzea; hartara, NUPeko zure txartela erakutsi beharko duzu, dagokion tasa ordaintzeaz gainera.

Nola eska dezaket?

Txartela eskuratzeko, ez da bestelako izapiderik egin behar, unibertsitateko izapide orokorren baitan aurreikusia baitago, matrikula bidez edo Alumni Programan izena emanez.

Non eta noiz jaso daiteke?

[Kontsultatu egunak eta tokiak](#)

Zer pin dauka txartelak?

Txartela zuri ematean, txartelari loturiko zenbakia ere emanen dizute; lau digitukoa da. Ez nahastu Zerbitzuen Atariko pasahitzarekin.

Pina alda dezaket?

Unibertsitate Arretarako Bulegoan alda dezakezu, liburutegiko beheko solairuan.

Ez naiz txartelaren pasahitzaz oroitzen...

Halakoetan, Iruñeko edo Tuterako Unibertsitate Arretarako Bulegora jo beharko duzu, edota Osasun Zientzien Fakultateko idazkaritzara.

Txarteleko pina blokatu zait

Iruñeko edo Tuterako Unibertsitate Arretarako Bulegora jo beharko duzu, edota Osasun Zientzien Fakultateko idazkaritzara.

Datorren ikasturtean berriz eskatu behar dut txartela?

Zenbait urterako balio du, txartelaren aurrealdean agertzen den egunera arte. Iraungitzen denean, txartel berri bat eskatu beharko duzu Unibertsitate Arretarako Bulegoan.

Txartela galdu dut...

Onera da Unibertsitate Arretarako Bulegora edo Osasun Zientzien Fakultateko idazkaritzara joatea, bertan jasotzen baitira unibertsitatean aurkitzen diren txartelak. Han ez badago, berri bat eskatzen ahalko duzu, 6 euroko (inguru) tasa ordainduta. Ez duzu berriro argazkia eramane behar, aldatu nahi ez baduzu, behintzat.

Lapurtzen badizute, doakoa izanen da kasuan kasuko salaketa aurkezten baduzu.

Nire txartelak akats bat dauka nire datu pertsonaletan. Zer egin dezaket?

Zure txartelak estanzazio-akatsak baditu, edo zure izen-abizenak aldatu badituzu, beste txartel bat eskatzen ahalko duzu Unibertsitate Arretarako Bulegoan edota Osasun Zientzien Fakultateko idazkaritzan.

Unibertsitateko nire txartela gaitu behar dut ongi funtziona dezan?

Ez da beharrezkoa, gaitua ematen baitzaio ikasleari. Kiroletan sartzeko, izapide gehigarri bat egin beharko duzu, kasuan kasuko bulegoetan azalduko dizutena.

Kontuan hartu txartel berria jasotzean automatikoki baliogabetuko direla aurretik unibertsitatean izan dituzun txartel guztiak.